– Titularra: Luis Miguel Sáenz Legarda-ereño jauna.

– Ordezkoa: Luis Bernardo Ochoa de Eribe Santamaría jauna.

CCOO sindikatuaren aldetik:

– Titularra: Jesús Uzkudun Illarramendi jauna.

– Ordezkoa: Kepa González García jauna.

LAB sindikatuaren aldetik:

– Titularra: Ibon Zubiela Martín jauna.

– Ordezkoa: Juan José Rodríguez Horna jauna.

UGT sindikatuaren aldetik:

– Titularra: Inmaculada López Martín andrea.

– Ordezkoa: Salvador Aranzueque Cuadrado jauna.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Administrazio-bideari amaiera ematen dion Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa ezar dezakete interesatuek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren aurrean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salan, agindua aldizkari horretan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 2a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

– Titular: D. Luis Miguel Sáenz Legarda-ereño.

– Suplente: D. Luis Bernardo Ochoa de Eribe Santamaría.

En representación de la Central Sindical CCOO:

– Titular: D. Jesús Uzkudun Illarramendi.

– Suplente: D. Kepa González García.

En representación de la Central Sindical LAB:

– Titular: D. Ibon Zubiela Martin.

– Suplente: D. Juan José Rodríguez Horna.

En representación de la Central Sindical UGT:

– Titular: Dña. Inmaculada López Martín.

– Suplente: D. Salvador Aranzueque Cuadrado.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 2005.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## 1101

AGINDUA, 2005eko otsailaren 10ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, «Fundación Alkartasuna Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Bilboko «Fundación Alkartasuna Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

## 1101

ORDEN de 10 de febrero de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Alkartasuna Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Alkartasuna Fundazioa», de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

AURREKARIAK:

1.– «Eusko Alkartasuna» alderdi politikoak «Fundación Alkartasuna Fundazioa» sortu du, hain zuzen ere, Bilboko Notarioen Elkargoko notario Alfredo Pérez Ávila jaunaren aurrean —3.153 protokolo zenbakiz— 2004ko irailaren 22an emandako eskritura publikoaren bidez.

2.– «Fundación Alkartasuna Fundazioa»-ren sortze helburua estatutuetako 3. artikuluan dago jasota:

«a) Euskal Herriaren nazio-nortasuna, -askatasuna eta -izaera defendatu eta sustatu.

b) Euskal Herriaren historia eta berari dagozkion eskubide historikoak aztertu, ikertu eta zabaldu.

c) Autodeterminazio eskubidearen eta euskal subiranotasunaren printzipio politikoaren alde egin, bai Euskal Herrian, bai Espainiako eta Frantziako estatuetan, bai Europar Batasunean eta bai nazioarteko erakundeetan ere.

d) Pentsamendu garaikideak ikuspegi nazional eta sozialetik izan dituen joerei buruzko azterlanak eta analisiak sustatu eta burutu; horren historia, jardunbidea eta euskal gizartean duen eragina.

e) Ekimen sozialak, kulturalak eta garapen-lankidetzarako alorrekoak garatu eta indartu, batik bat Euskal Herriarekin zeozelango lotura duten herrialdeekin (diaspora).

f) Euskal Herriaren dimentsio politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren garapen orekatua bultzatu.»

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan jartzen duenez, hau da: Areatza pasealekua, 2-3, Bilbao (Bizkaia). Jardute-eremua batez ere Euskal Herria izango da, estatutuetako 5. artikuluan jartzen duen moduan.

4.– Fundatzaileek hasieran jarritako dotazioa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu 404/1994 Dekretuaren 31.1.c artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera. Azken xedapenetatik lehenengoari jarraituz aplikatuko da artikulu hori.

5.– Fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 12. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran jartzen duenez, hauek izango dira:

ANTECEDENTES DE HECHO:

1.– Por el partido político «Eusko Alkartasuna» se ha constituido la Fundación denominada «Fundación Alkartasuna Fundazioa», mediante escritura pública, otorgada en Vitoria-Gasteiz, el día 22 de septiembre de 2004, ante el Notario del Ilustre Colegio Notarial de Bilbao, Don Alfredo Pérez Ávila (n.º de su protocolo 3.153).

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Alkartasuna», según establece el artículo 3 de su norma estatutaria, es:

«a) La defensa y promoción de la personalidad, libertad e identidad de Euskalherria como nación.

b) El estudio, investigación y difusión de la Historia y de los Derechos Históricos que corresponden al Pueblo Vasco.

c) La defensa del Derecho de Autodeterminación y del Principio político de la Soberanía vasca, tanto en Euskalherria, como en los Estados francés y español, en la Unión Europea y en otros organismos internacionales.

d) El fomento y realización de estudios y análisis sobre las corrientes de pensamiento contemporáneo en su dimensión nacional y social, y su historia, trayectoria e implicación en la sociedad vasca.

e) El desarrollo y estímulo a todo tipo de iniciativas sociales y culturales, así como en materia de cooperación al desarrollo, especialmente en aquellos pueblos que tengan alguna relación histórica con Euskalherria (Diáspora).

f) Propiciar un crecimiento armónico de las dimensiones política, económica, social y cultural de Euskalherria.»

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los estatutos fundacionales, queda fijado en Bilbao (Gipuzkoa), Paseo del Arenal, 2-3, y el ámbito territorial de actuación, conforme dispone el artículo 5, se extiende principalmente a Euskalherria.

4.– La dotación inicial realizada por el fundador asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31.1.c del Decreto 404/1994.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición Final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 12 de los estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional, estará integrado por,

Lehendakaria: Javier Caño Moreno jauna.

Lehendakariordea: Inmaculada Boneta Piedra andrea.

Idazkaria: Nekane Altxelai Uliondo andrea.

Diruzaina: Gotzon Olarte Lasa jauna.

Bokalak: Juan Porres Azcona jauna.
Mari Carmen Marín Guruceaga andrea.
Alfredo García Alonso jauna
Javier Lasagabaster Etxarri jauna.
Manuel Ibarrondo Agirregabiria jauna.
Arantza Ortiz de Zárate Isasmendi andrea.
Javier Antza Ugarte jauna.
Juan Daniel Barandiaran Jaca jauna.
Rosa María Agudo Huici andrea.
Koldo Amezketa Diaz jauna.
Manex Pagola Athor jauna
Santiago Merino Hernández jauna.
Miren Oiarzabal Irigoien andrea.

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan jasotako eraz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko ebazpena hartzea agindu-bidez. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 7 a) artikuluan.

2.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 31. eta 34. artikuluetan ezarritako betekizunak konplitu dira.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretua; eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak,

EBATZI DU:

*Lehenengoa.–* Gaur, F-170 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) «Fundación Alkartasuna Fundazioa» Euskal Au-

Presidente: D. Javier Caño Moreno.

Vicepresidente: Dña. Inmaculada Boneta Piedra.

Secretaria: Dña. Nekane Altxelai Uliondo.

Tesorero: D. Gotzon Olarte Lasa.

Vocales: D. Juan Porres Azcona.
Dña. Mari Carmen Marín Guruceaga.
D. Alfredo García Alonso.
D. Javier Lasagabaster Etxarri.
D. Manuel Ibarrondo Agirregabiria.
Dña. Arantza Ortiz de Zárate Isasmendi.
D. Javier Antza Ugarte.
D. Juan Daniel Barandiaran Jaca.
Dña. Rosa María Agudo Huici.
D. Koldo Amezketa Diaz.
D. Manex Pagola Athor.
D. Santiago Merino Hernández.
Dña. Miren Oiarzabal Irigoien.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO:

1.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 7.a del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones.

2.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 31 y 34 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

*Primero.–* Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el nú-

tonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

***Bigarrena.***– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

***Hirugarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu hau azkena da administrazio bidean. Horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 10a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

mero de registro F-170, de la constitución de la denominada «Fundación Alkartasuna Fundazioa», de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato, integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

***Segundo.***– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivos, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco.

***Tercero.***– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2005.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social.
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

**1102**

EBAZPENA, 2005eko otsailaren 4koa, Gizarteratze zuzendariarena, Euskadiko Laneratzeko Enpresen Erroldan joan den azaroan egin diren inskripzioak argitaratzeko dena.

Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzeko, enpresotan sartzeko prozedura ezartzeko, eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzeko den abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuaren 7.6 artikuluan agindutako ondorioetarako.

Gizarteratze Zuzendaritzak, otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DU:

***Lehenengoa.***– Euskadiko Laneratzeko Enpresen Erroldan joan den azaroan sartu diren laneratzeko en-

**1102**

RESOLUCIÓN de 4 de febrero de 2005, de la Directora de Inserción Social, por la que se hace pública la relación de inscripciones de empresas de inserción practicadas en el Registro de Empresas de Inserción durante el pasado mes de noviembre.

A los efectos de lo establecido en el artículo 7.6 del Decreto 305/2000, de 26 de diciembre, por el que se regula la calificación de las empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y se crea el registro de empresas de inserción.

Esta Dirección de Inserción Social, en ejercicio de las facultades que le atribuye el Decreto 44/2002, 12 de febrero.

RESUELVE:

***Primero.***– Acordar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de Empresas de Inser-